

«Zenbakiak PSErekin ematen dizkigute gehiengoak errazen»

Itxaso Atutxa • EAJren BBBko lehendakaria

«Besteak baino gogokoagoa den alderdirik» ez duten arren, Atutxak uste du itunak lortzeko PSE-EEren aukera dela onena, hauteskundeen emaitzak eta sozialistek erakutsi duten prestasuna kontuan hartuta.

Gotzon Herrosilla Bilbo

Lanpeturik dabil egunotan Itxaso Atutxa (Bilbo, 1967). EAJren Bizkaia Buru Batzarreko lehendakaria izaki, haren gain daude Bizkaian EAJk gainerako alderdiekin dituen harremanak itunak lortzeko itunak begira, eta, era berean, Juan Maria Aburtorekin batera egon da Bilboko udal taldeekin izandako bileretan ere, eta EBBk PSE-EE rekin eta Ahal Dugu-rekin izandako batzarretan ere parte hartu du.

Bileraz bilera dabil Atutxa itunak lortzeko langintza horretan: «Akordioak lortzea ez da erraza, baina ez da txarra», esan du. «Batzuetan, alderdien barruan ere pedagogia egin behar da, jendeak onar dezan zerbait partekatzeagatik ez dela ezer galtzen. Gehiengo osoak ondo daude, baina partekatzea ez da txarra».

Pozik zaudete hauteskundeetan lortutako emaitzekin?

Oso balorazio baikorra egiten dugu, egia esan. Egunotan saiatu gara balorazio lar ona ez egiten, inork gure poza harrokeriatzat har ez dezan, baina esan behar da emaitzak Bizkaian oso onak izan direla. Alde batetik, hautagaitzak 110 herritan aurkeztu ditugulako, eta hori ez da erraza; beste aldetik, hautagaitza asko berriztatu ditugulako, horien artean bi oso garrantzitsuak: Bilboko Udaleko eta Batzar Nagusietako zerrendaburuak. Eta apustu horiek egin eta gero, Batzar Nagusietan zein herrietan lortutako emaitzak ikus-teak poztasuna ematen du.

Bilboko Casillan egin zenuten azken mitinean, Inigo Urkullu lehendakariak itunen garrantzia nabarmendu zuen bere hitzaldian. Badirudi hauteskundeen osteko oraingo egoera aurrekusten ari zela.

Itunak aspalditik izan ditugu ahotan. Eta itunez berba egiten

dugunean, ez gara ari gehiengo osatzeko behar diren zenbakiez. Gehiago da itunen bidez zer lortzen den, egonkortasuna esaterako, eta batez ere, zenbat jenderen borondateak batzen dituzun proiektu baten inguruan. Guk oso emaitza onak izan ditugu, baina gure alderdiari botoa eman diotenak baino ez ditugu ordezkatzin. Aldiz, egitasmoa alderdi gehiagorekin partekatzen baduzu, herritarren zati zabal batekin ari zara adosten egiten duzuna. Hori izan da beti gure borondatea. **Gauzak zelan dauden ikusita, PSE-EErekin ituna egitea da aukerarik errealistena?** Garrantzitsuena da jakitea zein alderdik ematen digun egonkortasun zabalagoa. Guk gurari asko eduki ahal ditugu, baina zenbakiak zenbakiak dira, eta ez ditugu

«Zaila da aldundietan eta udaletan akordio batzuk egitea eta, gero, legebiltzarrean muturka ibiltzea»

«Bizkaian mugimendu batzuk izan dira, eta hainbat herritan alkatetzatik kanpo geratuko gara lehen indarra izanik ere»

alderdiok erabakitzen, herritarrek baizik. Gipuzkoan eta Bizkaian, zenbakiak PSE-EErekin ematen dizkigute gehiengoak beste inorekin baino errazago. Araba beste mundu bat da, oso egoera desberdinak daudelako Gasteizen eta herrialdean.

Guk ez dugu lehenastunak edo besteak baino gogokoago dugun alderdirik; denek deitu diegu, eta denekin berba egin dugu, baina egia da alderdiek dagoeneko jarrerara bat hartu dutela. PSE-EEren kasuan, haiekin zenbakiak errazago ematen dute gehiengo, eta, gainera, hitz egiten jarraitzeko prest agertu diren bakarrak dira. Beraz, guk bide horretatik jarrai-

tuko dugu. Baina ez dakigu zertan amaituko den.

Akordioa lortuz gero, Eusko Legebiltzarrean eramateko aukera jarri duzue mahai gainean, baina ez du ematen PSE-EE ados dagoenik.

Guk ikusten dugu zaila dela Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundietan, Donostiako Udalean, Bilbokoan eta beste hainbat udaletan akordio batzuk egitea eta gero legebiltzarrean muturka ibiltzea. Horrek ez du esan nahi PSE-EE ezin denik oposizioan mantendu: sarritan, akordioak egiten direnean, aldeak agiri bat hitzartzen dute zein gaitan ez dauden ados adierazteko. Baina ez dakigu legebiltzarrean akordioak egongo ote den. Nonbait irakurri dut PSE-EE ez dela gobernuan sartuko; horrelakorik ez da planteatu.

Gehiago bilatzen dugu legebiltzarrean beste mota bateko harremana izatea, eta ez derrigorrean akordio zehatz bat.

Eta gainerako instituzioetan elkarrekin gobernatzea proposatzen duzue?

Hori ere irakurri dut nonbait, eta ez dakit nondik atera den, akordioak mota askotakoak izan daitezke-lako. Hemen ikusi ditugu legealdi akordioak gobernuan parte hartu barik. Ikusi egin beharko da.

PSE-EErekin ituna eginez gero, zuen irizpidea izango litzateke boto gehien eskuratu duen zentzura errespetatzea?

Guk orain arte esan dugu, eta aurrerantz ere mantenduko dugu, boz gehien lortu quen alderdiak daukala lehenengo erantzukizuna eta ardura gobernu osatzeko. Hori bai: alderdi horrek gehiengo lortzen ez badu gobernu osatzeko, eta beste batzuek bai, zilegitasun osoa dute hori egiteko. Guri ere gertatuko zaigu:



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

orain, Bizkaian, guk baditugu arriskuan zenbait udal, lehenengo indarra izanik ere, badakigulako ezker abertzalea eta beste batzuk akordio bila ari direla. Mugimendu batzuk egon dira, akordio batzuk erdi itxita dauzkate, eta gu alkatetzatik kanpo geratuko gara nahiz eta gehiengo izan. Bihotza apurtuko zaigu, baina horiek onartu beharra dauzkagu. **Gasteizen, aukerarik ikusten duzue beste mota bateko udal gobernu osatzeko?**

Nire balorazioak errespetuz egin nahi ditut nik Bizkaitik berba egiten dudalako, baina nire ustez, gogorra ez da Maroto alkate izatea, baizik eta Marotok duen diskurtso horrek horrenbeste boto lortzea. Hori esanda, ni ez nago frentismoaren alde, ez dut uste inoren kontrako batuketarik egin behar denik, baina lehen esan dudanak balio du hemen ere: boto gehien duenak dauka erantzukizuna gobernu osatzeko, baina lortzen ez badu, besteek zilegitasun osoa dute ahalegin hori egiteko. Orain, Marotok lortu behar du gehiengo. Haren esku dago. Badirudi Marotoren

jarrera dela bakarrik joatearena; horrek oso etorkizun beltza ekarri ahal dio, baina berak landutako etorkizuna izango litzateke.

PSE-EE eta EAJren arteko ituna gauzatuko balitz, atzerapauso izango litzateke erabakitzeo eskubidearen aldeko arloan, Hasier Arraizek iradoki duen moduan?

Orain aldundiez eta udalez ari gara hitz egiten. Arraiz eta bere alderdi sozialistekin elkarriketak izan eta akordioak lortu dituztenean, hori erabakitzeo eskubidearen kontrako jarrera izan ez bada, ez dakit zergatik izan behar duen atzerapauso EAJk eta PSE-EEk elkarlanean akordio bat lortzea.

Aldundiek eta udalek ez dute inongo aukerarik erabakitzeo eskubidearen inguruan zerbait konkretua lortzeko; horretarako badago non, Eusko Legebiltzarra alegia. Han, zorionez, alderdi guztiak daude ordezkaturik, eta lantalde bat ere bada lanean. EAJk 120 urte daramatza nazio honetarako beste egitura politiko baten alde lan egiten, eta ez dugu sekula horren kontra egin.